

Euskal astea

2022ko
abuztuaren 25etik
irailaren 9ra

EUSKAL
JAIAK
ZARAUZKO



**Festa, herria,
hizkuntza.
Zaindu maite
duzuna!**

Xabier Txurruka
Zarauzko alkatea



**ERASO SEXISTARIK
GABEKO JAIAK!**
ZAINDU ZAITEZ, ZAINDU
GAITEZEN, ZAINDU DITZAGUN!

LARRIALDIAK: 112 / UDALTZAINGOA: 943 00 51 15 / ERTZAINZA: 943 53 89 00

**EUSKAL JAIETAN OHITURA
ZAHARRAK MANTENTZEKO
AHALEGINEAN HERRITAR GUZTIOI
ZUEN JANZKERA ZAINZERA
GONBIDATZEN ZAITUZTEGU.
ONDO PASATU JAIAK!**

Antolatzailea



ZARAUZKO UDALA



L a g u n t z a i l e a k

AEK / Alproja Taldea / Euskal Herrian Euskaraz/
Goiztarak / Zarautz/TRIK / Imanol Urbietta Musika
Eskola / Jalgi Dantza Taldea / Motxian-Etxebeltz
Bertso Eskola / Nahiko Larri Trikitilariak / Goizeko
Ihintza Txistulari Taldea / Zarautz Abesbatza / Schola
Cantorum / Txipirin abesbatza / Udaberri abesbatza

Oharra: antolatzaileek ez dituzte bere gain hartuko jai
hauetan gerta daitezkeen istripuak. Hala eta guztiz ere,
beharrezko jotzen den ekitaldietan DYA erakundea izango da.

Abuztuaren 25a, osteguna

22:00 Musika Eskolako aretoan, Bertsolari Gazteen XLVI.
Lizardi Sariaren kanporaketa saioa.

Abuztuaren 26a, ostirala

22:00 Musika Eskolako aretoan, Bertsolari Gazteen XLVI.
Lizardi Sariaren kanporaketa saioa.

Irailaren 1a, osteguna

19:00 Lege Zaharren enparantzan, Helduen Binakako
Dantza Txapelketa (♫, Modelo aretoan).

Irailaren 2a, ostirala

22:00 Modelo aretoan, Bertsolari Gazteen XLVI. Lizardi
Sariaren finala. Sarrera: 3€ (Turismo Bulegoan).

Irailaren 3a, larunbata

11:00 Musika plazatik irtenda, Euskararen aldeko XXXVI.
Lasterketa eta Euskararen aldeko III. Irristaketa Lasterketa,
AEK-k antolatuta (izen-emateak 10:15ean).

11:30 Lege Zaharren enparantzan, XXXIV. Auresku
Txapelketa (♫, Modelo aretoan).

Aldi berean, "Euskaraz Bizi Malekoian", herriko hainbat
elkartek antolatuta:

11:30 Musika eta dantza emanaldiak itsas pasealekuko
lau gunetan.

12:30 Amaierako ekitaldia Gurutze Gorriaren parean
izango da. "Martxa baten azken notak", "Behin
betiko" eta "Ikusi mendizaleak" abestu eta
dantzatuko ditugu elkarrekin, eta euskararen
aldeko aldarria irakurriko dugu.

14:30 Musika plazan, XXXVI. Bazkari Herrikoa, EHEK
antolatuta.

18:30 Musika plazatik, kalejira aldarrikatzailea, AEK eta
EHEK antolatuta.

22:30 Musika plazan, kontzertua *Lukiek* taldearekin.

Irailaren 4a, igandea

Haurren Euskal Jai Eguna

10:00 Zelai Ondoko bolatokia, bolo eta toka txapelketa (izen-ematea: 10:00etatik aurrera).

10:30 Lege Zaharren enparantzan, dantzarien bilkura.

11:00 Kalejira Musika eskolako txistulari eta trikitilariekin.

11:15 Dantzariak kalez kale.

12:45 Lege Zaharren enparantzan, dantzarien harrera eta emanaldia (🎵, Gaztelekun).

13:30 Lege Zaharren enparantzan, haurrak familietan banatuko dira bazkaltzeko (🎵, Gaztelekun).

17:30 Kalejira Musika plazatik Iñurritzara, buruhandi, erraldoi, *Zarautz TRIK* eta *Ustekabe* txarangarekin.

Ondoren, Iñurritzara dantzarien bilkura.

18:00 Iñurritzara, puzgarriak.

18:30 Iñurritzara, *Ttipika* haurrentzako dantza gidatuak.

20:00 Kalejira Iñurritzatik Musika plazara.

Irailaren 5a, astelehena

19:00 Lege Zaharren enparantzan, Bikote Gazteen Dantza Txapelketa (🎵, Modelo aretoan).

Irailaren 6a, asteartea

Victoria itsasontzi zarautzarrak mundubira egin zueneko 500. urteurrena

11:30 Kalejira erraldoi, buruhandi eta trikitilariekin.

Jarraian, trikitilariak herriko kaleak girotuko dituzte.

12:30 Lege Zaharren enparantzan, Parrilla herrikoa, sagardo eta txakolin dastaketa. Parte-hartzaileak: Arregi, Basa Lore, Mokoroa, Rezabal, Talai Berri txakolindegia eta Arizia sagardotegia.

13:30 Lege Zaharren enparantzan, Bertso Saioa: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Oihana Iguaran.

19:00 Musika plazan, erromeria *Erromeria.eus* taldearekin.

20:00 Lege Zaharren enparantzan, herriko taldeen jaialdia: Festa aurrea ederrago du atzea baino (🎵, Modelo aretoan).

Parte-hartzaileak: *Zarautz TRIK* kultur elkarteak, *Jalgi* dantza taldea, *Txinpirin* abesbatza, *Zarautz* abesbatza, *Udaberri* abesbatza, *Motxian-Etxebeltz* bertsogunea. Antzerkilariak: Ainhoa Agirre, Ibai Goikoetxea, Maite Isasti, Erik Peitevin de Saint-André. Argi diseinua: Juanma Álvarez (*Didau*). Kontalariak: Pako Serras eta Miriam Mendoza. Ikuskizun koordinatzailea: Patxi Santamaria.

Irailaren 7a, asteazkena

19:00 Lege Zaharren enparantzan, Trikitilari Gazteen XLII. Txapelketa (🎵, Modelo aretoan).

Irailaren 8a, osteguna

19:00 Musika plazan, plaza-dantzak *Alaken* taldearekin.

20:00 Frantziskotarren elizan, *Zarautz* Abesbatzak Salbea abestuko du.

Euskal Jai Eguna

Irailaren 9a, ostirala

7:00 Diana herriko kaleetan zehar.

8:00 *Goiztarrak* taldearen irteera. Antzinako ohiturak berreskuratuz, goizean, garai bateko pertsonaiak irudikatuko dituzte kalez kale.

8:30 Kalez kale, txistulariak, trikitilariak, dultzaineroak eta Iturengo tunturoak.

10:30 Frantziskotarren elizan, Meza Nagusia, *Schola Cantorum* Abesbatzak abestuta.

Mezaren ondoren, Frontoi Txikin, *Goiztarrak* taldearen eskutik, pilota partidak, herri-kirolak eta bertsolariak.

11:45 *Alproja* taldearen irteera (San Inazio kalea, Kale Nagusia, Musika plaza, Dorre Luzea parkea, Nafarroa kalea eta Munoa).

12:00 Munoa, 2x2 antzezlanak.

Eguerdiaren, Musika plazan, erromeria, trikitilari, txistulari eta dultzaineroekin.

Ordu berean, Lege Zaharren enparantzan, erromeria trikitilariekin.

12:30 Nafarroa kaletik karroza aterako da. Jarraian, Azpeiti bidea, Bizkaia kalea, Foruen kalea eta Lege Zaharren enparantzan geldituz.

13:15 Munoa, erromeria *Trikiteens* taldearekin.

13:30 Lege Zaharren enparantzan, orga-lehiaketaren sari-banaketa.

14:00 Musika plazan, Lizarrako Larrain Dantza herrikoa dultzaineroekin.

17:30 Musika plazatik Iñurritzara kalejira, trikitilari, dultzainero eta txistulariekin.

Aldi berean, karroza Lege Zaharren enparantzatik Iñurritzara joango da.

18:00 Iñurritzara, haurren txokoa Kulkirekin (tailerrak, herri kirolak, egurrezko jolasak, etab.)

18:30 Iñurritzako zelaian, erromeria *Bide Batez* taldearekin.

20:00 Iñurritzara, Lizarrako Larrain Dantza herrikoa dultzaineroekin.

20:30 Kalejira, Iñurritzatik Musika plazara.

22:00 Munoa, dantzaldia *Trikiteens* taldearekin.

22:30 Musika plazan, erromeria trikitilariekin.


EUSKAL
JAIK
ZARAUTZ